

PRENTSA OHARRA
NOTA DE PRENSA

GIZARTE ERALDAKETARAKO HEZKUNTZAREN III. JARDUNALDIEN ERRONKA IZANGO DA TOKIKO ETA GLOBALA IKUSPEGIA ARTIKULATZEA

- Catherine Walsh kulturartekotasun kritiko eta dekolonialitateari buruzko irakasle eta ikertzaileak parte hartuko du
- Jardunaldiak birtualak izango dira eta aurretik izena eman behar da www.ongdeuskadi.org webgunean

Vitoria-Gasteiz, 2020/10/15

Urriaren 23an eta 24an Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren III. Jardunaldiak egingo dituzte birtualki. Aurtengo izenburua izango da “Tokikoa eta globala antolatzea ekintza pedagogiko eraldatzailleetan aurrera egiteko”, eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia-Elankidetzaren, Euskadiko GGKEen Koordinakundearen eta HEGOA Institutuaren artean antolatu dituzte. Ekimena zuzenduta dago irakasleei, hezitzaileei, gizarte entitateetako langileei zein garapenerako lankidetzako kideei, besteak beste.

2017ko martxoak (H)ABIAN 2030 - Gizarte-Eraldaketarako Hezkuntzaren Euskal Estrategia aurkeztu zen, askotariko eragileen artean egindako prozesu parte-hartzaile baten ondorioz sortutakoa. Estrategia honek, hain zuzen ere, gizartea eraldatuko duen hezkuntza sustatzeko jorratu behar diren lan-ildoak edo indar-ideiak ezartzen ditu.

Urtero indar-ideia bati heltzen zaio, eta, oraingoan, ikuspegi lokal-globalean sakonduko dute. Ikuspegi honek mahaigaineratzen du tokian egindakoa mundu osoan eragina duela eta erronka globalei nahitaezkoa dela erantzun partekatuak ematea hala nola, klima- aldagetari, desberdintasunei edota pandemiei. Hori lortzeko ezinbestekotzat jotzen da gizartea eraldatzeko hezkuntza prozesuak abiaraztea. Horregatik, hain zuzen ere, jardunaldietan parte hartuko dute hezkuntza formalaren eta ez-formalaren esparruko hizlariak eta esperientziak.

Inaugurazio-hitzaldia urriaren 23an izango da, eta, bertan, Catherine Walsh-ek eta Nacho Rivas-ek elkarrizketa bat izango dute. Walsh Quitoko Universidad Andina Simon Bolivar unibertsitateko Ikasketa Kultural Latinoamerikarren zuzendaria da, eta justiziako eta gizarte-eraldaketarako prozesuetan nahiz borroketan aritu da. Rivas Málagako Unibertsitateko katedraduna eta ikertzailea da; eskola-antolakuntzari buruzko diziplinei eta irakasleen garapen profesionalari buruzko gaiei lotuta dago.

Jardunaldiek hurrengo egunean, urriaren 24an, jarraituko dute, eta hainbat erakundek tokiko-globala ikuspegia duten eraldaketa-esperientziak aurkeztuko dituzte: Mundubateko Sarai Martín-ek hitz egingo du “[Cadenas Transnacionales de Cuidados](#)” etxeko eta zaintzako langileak biltzen dituen ekimenari buruz; Garabideko Eñaut Agirrek aurkeztuko du erakundeak Mondragon unibertsitatearekin batera martxan duen [hizkuntza biziberritzeko aditu ikastaroa](#), non hizkuntzaren alde lan egiten duten herri indigenetako erakundeak indartzen dituzten; Educación Música y Compromiso, cooperación elkarrekin jorratuko du “[Aula revuelta](#)”, Valentziako irakasle talde batek sortutako egitasmoa, eta Hortensia Serranok erakutsiko du [Zabaldi Elkartasunaren Etxea](#), nazioarteko elkartasun eta lankidetzan aritzen diren hainbat taldek sortutako gizarte etxea.

Aurreko urteetan jardunaldiak presentzialak izan ziren, baina egungo egoera dela eta, birtualki egingo dira. Hala ere, eta eztabaida aberastu nahian, esperientziak azaldu eta gero *zoom* aplikazioaren bidez lantegiak egingo dira taldeka hausnartzeko hezkuntzan tokiko eta globala ikuspegia nola bermatu daitekeen. Taldeak egiteko helburuarekin, izena eman beharko da urriak 19 aurretik www.ongdeuskadi.org webgunean.

ARTICULAR LO LOCAL Y LO GLOBAL SERÁ EL RETO DE LAS III JORNADAS DE EDUCACIÓN PARA LA TRANSFORMACIÓN SOCIAL

- En la inauguración participará Catherine Walsh, activista y docente e investigadora en interculturalidad crítica y decolonialidad
- Las jornadas se harán de manera virtual previa inscripción en la página web www.ongdeuskadi.org

Vitoria-Gasteiz, 15/10/2020

El 23 y 24 de octubre se llevarán a cabo de manera virtual las III Jornadas de Educación para la Transformación Social “Articular lo local y lo global para avanzar en acciones pedagógicamente transformadoras”. Las jornadas se han organizado entre la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo - Elankidetza, la Coordinadora de ONGD de Euskadi y el Instituto HEGO. Las mismas están dirigidas a personal docente, personas educadoras, personal de entidades sociales o de cooperación para el desarrollo, entre otras.

En marzo de 2017 se presentó (H)ABIAN 2030 - Estrategia Vasca de Educación para la Transformación Social, creada tras un proceso participativo con diferentes agentes. Esta estrategia establece las líneas de trabajo o ideas fuerza a ir desarrollando con el fin de promover una educación que tenga como meta la transformación social.

Cada año se aborda una de esas idea-fuerza que, en esta ocasión, profundizará en el enfoque local-global. Este enfoque pone de manifiesto que lo que ocurre en un lugar concreto repercute en todo el mundo y que la respuesta a los desafíos globales como el cambio climático, las desigualdades o la pandemia actual debe ser conjunta. Para conseguirlo se considera imprescindible la puesta en marcha de procesos educativos de transformación social. Por ello, en las jornadas participarán ponentes y experiencias del ámbito de la educación tanto formal como no formal.

La ponencia inaugural será el 23 de octubre y en ella Catherine Walsh y Nacho Rivas mantendrán un diálogo sobre el tema. Walsh es directora del doctorado en estudios Culturales Latinoamericanos de la Universidad Andina Simón Bolívar de Quito y ha estado involucrada en procesos y luchas de justicia y transformación social. Rivas es catedrático e investigador de la Universidad de Málaga y ha estado ligado a disciplinas de organización escolar y a temáticas vinculadas al desarrollo profesional del docente.

Las jornadas continuarán a la mañana siguiente, el 24 de octubre, con la presentación de cuatro experiencias transformadoras en clave local-global: Sarai Martín de Mundubat hablará sobre la iniciativa [“Cadenas Transnacionales de Cuidados”](#), que reúne a trabajadoras de hogar y cuidadoras; Eñaut Agirre de Garabide presentará el curso [Experto en Rehabilitación de la Lengua](#), que, junto a Mondragón Unibertsitatea, trata de fortalecer las organizaciones indígenas que trabajan a favor de la lengua; Educación Música y Compromiso, cooperación presentará [“Aula revuelta”](#), iniciativa creada por un grupo de docentes de Valencia, y Hortensia Serrano mostrará [“Zabaldi elkartasunaren etxea”](#), centro social creado por entidades que trabajan en el ámbito de la solidaridad internacional y la cooperación.

En años anteriores las jornadas se realizaron de manera presencial, pero debido a la situación actual, se ha optado por el formato virtual. Sin embargo, y con el objetivo de enriquecer el debate, tras la exposición de las experiencias se harán unos talleres grupales por medio de la aplicación *zoom* sobre cómo asegurar el enfoque local-global en la educación. Con el objetivo de crear los grupos de trabajo, las personas interesadas tendrá que inscribirse antes del 19 de octubre en la página web www.ongeusyadi.org.